Poeta, antzerkigilea eta editorea izan zen, eta haren ibilbidea **independentzian eta modernotasunean** oinarritu zen. Haren lanean bat egiten dute bitalismoak, askatasunaren bilaketak, amodioak, bidaiak eta norbere burua gainditzeko grina.

Haren **lehen liburuetan abangoardien eragina** islatzen da, eta hizkuntza dinamikoa erabiliz mugimendua, kirola eta modernitatea goresten ditu. **Gerra Zibilaren eta erbestearen ondoren**, haren poesiak **tonu intimoagoa eta pentsakorragoa hartu zuen**, nostalgia, deserrotzea eta memoria ardatz hartuta.

"Concha Méndezek idazle-gizonaren bizitza darama. Solasaldi, kafe eta abarretara joaten da (...) Bertsoak egiten ditu tennisean aritzen den bezala edo igeriketa-txapelketak irabazten dituen bezala. Haren familiak idaztea debekatu dio, eta, hori ikusita, kanpora joan nahi du; Londresera joanen da ziur aski".
(Ernestina Champourcinek Carmen Conderi, 1928-09-11)

AUTOMOBILA

Automobila
Klaxon-hotsaren kantata.
Kale ilunean zehar argizko harra.
Gau hotzaren erdian begietan du garra.
Hiriko narrastia, arin doa arrastan.

(*Inquietudes*, 1926)

ZABAL DA ITSASOA

Zabal da itsasoa; urrunduko gaitu;
gure arimak elkarturik katean.
Azken erretratu bat, hor finkaturik
argiki gure soak begietan.
Hartuko dut ontzi bat, kaian dago;
hari segituko dio zureak.
Bi beso zain dituzu, ez dakit non...
kairen batean... hondartza batean!

(*Poemas* 1926-1986)



CONCHA MÉNDEZ